

B

BARREN

TOKIKOM

**“Politika ez
da laguna
eta etsaiaren
arteko jolasa”**

Esteban Antxustegi

SAN ROKE KAFETEGIA

KAFETEGIA

SAN ROKE 18, BEHEA

Inaugurazioa!

Ostirala 9, arratsaldeko 19:00etan
ETORRI ETA DASTATU GURE PINTXOAK

Ekarri ezazu zure publizitatea

BARREN astekarira
eta guk banatuko dugu
Elgoibar eta Mendaroko
etxeetan.

Banatzailea

**943 744 112 telefonoan
eska ezazu informazioa!**



Euskal txirrindularitzak krisi hotsak entzun ditu oraingoan!

Otsailaren 25ean ezusteko albiste batekin gosaldu genuen: Euskal Herriko itzulia eta Donostiako klasikoa kinka larrian, diru faltagatik! Bat-batean, umea nintzeneko oroitza-penak etorri zitzaizkidan burura: gurasoekin nola joaten ginen errepide bazterrean txirrindulariak pasatzen ikustera, bertan ematen genituen orduak txapelaren bat edo beste edozein orogarri etxeratzeko irrikitan, eta baita mundu mailako ospetsuenen sinadura bat lortzeko egiten genituen saiakerak ere. Era berean, azken urteotan, Usartza gainean pilotzen zen zale andanaren irudia gehiago ez nuela ikusiko pentsatzeak ere, bihotza ukitu zidan.

Gaur egun txirrindularitza profesionala negozioaren norantzan mugitzen ari da. Duela gutxira arte imajina ezina zen Omanen, Qatar-en eta Beijin-en txirrindulari onenak lehiatzen ikustea. Baina UCIk gero eta interes handiagoa du horrelako herrialdeetara lasterketak eramateko. Beraz, argi dago gure lasterketa galzen badugu, ez dugula berehalakoan berreskuratuko.

Euskal Herriko itzulian Arrateko maldek eta Donostiako klasikokoan Jaizkibelgo maldetako argazkiek argi adierazten duten legez, euskal zalegoa munduko onenetarikoa da. Ez guk diogulako, baizik eta nazioarteko profesional onenek horrela diotelako (Jens Voigt-ek iaz euskal zaletuei idatzirik eskertza gutuna dugu horren adibide).

Lerro hauek idaztearekin bat ailegatu zait albiste pozgarria, ametsgaiztoa ez da gauzatuko, eta, aurtengoz bada ere, gure bi lasterketa kuttunenak leihatuko dira! Badaukagu non gozatua, apirileko lehen astean eta abuztuaren 14an!



Iñaki Iraola

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Gaur egun txirrindularitza profesionala negozioaren norantzan mugitzen ari da"

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Otsaileko irabazlea:
M^o BEL GONZALEZ

Martxoko saria:
**ORRAZKERA +
MAKILAJEA +
AZAZKALAK LIMATU
ETA MARGOTU**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantekura: egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570




MEKANOSA

Errosario, 27
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDAKO UDALA



ELGOIBAR



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Burujabetza eta justizia soziala, M29an greba orokorra!

Espainiako gobernuak, PSOEek bultzatutako erreformekin lehenengo, eta PPK onartutakoarekin orain, ongizate estatua eta hamar-kadetako borroka eta lanaren ondorioz lortutako eskubideak galbidean jarri ditu. Langileok eta herritarrok, oro har, sortu ez dugun krisia guk ordaintzea nahi dute. Hau ez da zerbait tenporala edo herrialde bati loturiko krisi egoera. Honaino ekarri gaituen sistema kapitalista da krisian dagoena, eta boteredunek, egoera honetan, beraien etekinak mantentzeko edozer egiteko gai direla argi laga digute: agintariak beraien izendatzea, erreformak inposatzea, sistema publikoko dirua lotsagabe eskatu eta xahutzea...

Sinestarazi nahi digute, ez dagoela erreforma atzerakoiak onartzea beste biderik krisitik irteteko, baina dagoeneko, edonork daki erreforma hauek ez gaituztela inongo krisitik aterako. Alternatibak, egon badaude. Hor dauzkagu, adibidez, Islandia eta Eskoziako ereduak. Lehenengoek, krisiaren benetako arduradunak (banka eta agintariak) epaitu eta zigortze bidean jarri dituzte. Bigarrenek, beraien buruaren jabe izateko bidea jarri dute martxan.

Euskal Herritarrok ere, krisitik irteteko eta krisiaren ardura dagokionari eskatzeko, geure erabakien jabe izatea dugu gakoa. Herri honek ez du espainiar edo frantses estatuen menpe etorkizunik, galbidea ez besterik. Burujabetza eta justizia soziala dira bidea. Martxoaren 29an, hori aldarrikatzera kalera irten-go gara. Martxoaren 29an greba orokorra!

Elgoibarko Ezker Abertzalea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Ainara
Sedano

Epa, Noe! Duela hilabete batzuk sarean ibili zen halako eskaera edo sinadura bilketa bat, ogasunaren aitorpenean aukera berri bat eduki ahal izateko; norberak bere diruaren ehuneko txiki bat zientziara emateko, alegia. Auskalo norabait iritsiko ote den eskaera hau, baina ezin duzu imajinatu zenbateko poza jaso nuen proposamenarekin! Badiruri kontzientzia hartzen ari garela zenbateko garrantzia daukan, eta zoritxarrez aukera on pila bat hemendik beste herrialde batzuetara ihes egiten uzten ari gara, bekadun ikertzaile moduan, hemen *egun on* ere esaten ez diegulako.

“Lehen inork erreklamatzeko ez zituen eskaleen gorpuk erabiltzen zituzten ikerketarako”

Aspaldian gai bat burutik kendu ezinda nabil: hiltzean, norberak bere gorpua zientziara ematea, ikerketarako. Lehen gorpuen falta egoten omen zen, eta inork erreklamatzeko ez zituen eskaleen gorpuk erabiltzen omen zituzten ikerketarako. Duela gutxi irakurri nuen orain gorpu pila bat daudela horretarako, eta horrek ere poztu ninduen! Eta benetan ohoragarria iruditzen zaidan arren, aitortu beharra daukat sentimendu arraro bat sortzen didala pentsatzeak sikiera. Ene! Nolako gaiarekin natorren gaur! Alzheimerri buruzko saio bat ikusi nuen bart (Pascual Maragall eta beste hainbat gaixo eta haien familiako batzuen inguruan grabatutakoa) eta halakoak ikustean pentsatzen dut ikerkuntzari hobeto etorriko zaiola nere gorpuekin *harakiria* egitea, zerbait ikasteko balio badu. Eta nik ere nahiago dut hori, zomorroek jatea baino!!!!



Noemi
Otegi

Ainara, baina ba al dakizu zergatik igoden hainbeste zientziara ematen diren gorpuen kantitatea? Ziur baietz, badugula gero eta kontzientzia gehiago gai honekiko, baina nonbaiten irakurri dudanez, igoera hau zuzenean dagotua *txin-txin diruaren hotsarekin*, edo kasu honetan, *txin-txin diruaren hots faltarekin*! Hau da, merkeagoa irteten omen da gorpua zientziari ematea, hileta bat ordaintzea baino! Ez dizut honekin, ilusioa kendu nahi, egia delako, dudarik gabe gero eta kontzientzia gehiago dugula hainbat gaitekiko, baina tamalez, badira beste arrazoi batzuk, kontzientziak baino bultzada handiagoa eragiten dutenak.

“Merkeagoa irteten omen da gorpua zientziari ematea, hileta ordaintzea baino”

Egia da, bai, gero eta gaitz gehiagoren berri dugula, eta haue-tako gaitz batzuek pertsona askori eragiten die. Beste batzuk, berri-z, nire ustez gordinenak direnak gutxi batzueri eragiten die, eta hauek ikertzeko behar den dirua lortzea bai dela benetan zaila. Horretan dihardute, esaterako, hainbat gurasok. Makina bat ekimen martxan jartzen dituzte, euren seme-alaben gaixotasunaz gehiago jakin ahal izateko eta ahal den neurrian beraien bizi kalitate-a hobetzeko. Hain ospetsua zaigun krisialdi honek ez du baltete laguntzen, baina gaixotasunak ezagutzen ditugun neurri be-rean, ezagutzen ditugu ikerketarako dirua biltzeko ekimen pila bat daudela. Badira egunero, etsi gabe, itsaropenerako ateak zabal-tzen dihardutenak, eta eskerrak!



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

2012ko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira:

- ▶ Euskal Herria eta Espainia: **21€** - Bazkideek: **17€**
- ▶ Europa: **31€** - Bazkideek: **25€**
- ▶ Europatik kanpo: **42€** - Bazkideek: **34€**

Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan:
943 744 112 (Ainhoa) edo barren@elgoibarkoizarra.com

Talde berria aurkeztu du Elgoibarko EGIk

Aro berri bati ekiteko asmoa du taldeak



Joan den zapatuan aurkeztu zuen Elgoibarko Eusko Gaztedik, EGIk, talde berria. Azken urteetan taldeak izan duen dinamika apala berpiztu eta aro berri bati ekiteko asmoa dutela azaldu zuten alderdi jeltzaleko gazteek aurkezpenean. Aro berrian, Maialen Gurrutxaga eta Asier Atorrasagasti arduratuko dira taldea gidatzeaz. Aurkezpenean Markel Olano, Joseba Egibar eta Eneko Goia politikari jeltzaleen babesa jaso zuten gazte elgoibartarrek.

Idoetak eta Alberdik Euskal Herriko mus txapelketako finala jokatuko dute



Joxe Idoeta eta Xabier Alberdi Euskal Herriko mus txapelketako finalerako sailkatu dira. Elgoibarko kanporaketan irabazi ostean, Seguran jokatu zuten Gipuzkoako fasea otsailaren 25ean, eta aurrera egitea lortu zuten. Beraz, martxoaren 17an Arbizun (Nafarroa) jokatuko dute Euskal Herriko txapelketa. Bikote txapelkunak 3.000 euro, lau lagunentzako nazioarteko bidaia eta Euskal Herriko Mus Txapelketako irabazle txapela irabaziko ditu.

Ikastolako material zaharra biltzeko eskaera egin dute

Elgoibarko Ikastolak 50 urte egingo ditu aurtun, eta beste hainbat ekitaldiren barruan, erakusketa bat antolatu nahi dute. Horretarako, ikastolako material didaktikoa behar dute. Ikastolako umeen gurasoei egin diete eskaera, baina horrez gain, herritarren laguntza behar dute. Hortaz, ikastolako material didaktikoa dutenei Ikastolara eramateko eskaera egiten diete.

IK4-Ideko 'High Speed Machining' kongresuan izan da

Aste honetan High Speed Machining kongresua burutu dute Donostian, eta Elgoibarko IK4-Ideko zentro teknologikoa bertan izan da. Fabrikazio eta produkzio industrialeko teknologietan espezializatua da IK4-Ideko, eta Elgoibarko zentro teknologikoak lau ponentzia eskaini ditu. Besteak beste, fabrikazio teknologien garapenean eman diren oinarriko azken pausak izan dituzte mintzagai.

Atxutxiamaikak Aste Santurako hainbat ekintza prestatu ditu

Atxutxiamaiak aisialdi taldeak hainbat ekintza prestatu ditu Aste Santurako. Batetik, 2tik 8 urtera bitarteko umeentzako txokoak egingo dituzte, Ludotekan eta Gaztelekuan. Txokoetan parte hartzeko 42 euro ordaindu behar dira, (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 38 euro), eta nahi duenak, goiz txoko zerbitzuan izena emateko aukera ere izango du.

Era berean, LH3tik LH6ra bitarteko ikasleentzako Zarautzera bidaia prestatu dute, apirilaren 10etik 13ra. Surf ikastaroa, jolasak eta irteerak egingo dituzte, besteak beste. Egonaldi horren prezioa 83 eurokoa da, (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 75 euro).

Txokoetan zein Zarautzeko egonaldian izena emateko azken eguna martxoaren 23a izango da. Interesatuak, 943 741 626 telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko.

Izena **Arnaldo Otegi**



2003an Erregeari irainak egitea leporatuta Otegi ezarri zitzaion zigorra "neurrigabea" zela adierazi zuen iaz Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, eta kalte ordainak emateko agindu zion Espainiari. Espainiako Gobernuak Justizia Ministerioak agindu du Otegi kalte-ordain gisa 20.000 euro pagatzeko.

Alberto Ruiz-Gallardon Justizia ministroak esan du ez duela bat egiten Europako epaiarekin, baina bete egingo duela, "disgustoarekin" bada ere.

Berbia **Barrikotea**

Kimetz elkarteak Barrikotea antolatu du biharko. Elkarteak, beraz, sagardotegi bilakatu dute bihar gauean, eta sagardotegi menua dastatzeko aukera izango dute bertara gerturatzeko. Sagardoa txotxetik, makailao tortila, txuleta, intxaurrek, gazta eta menbrilloa. Tiketak 20 eurotan erosi daitezke, Jai Alai eta Lanbroa tabernetan.

Irudia **Auto bat erre da Artetxen**



Zapatutik domekarako gauean auto batek su hartu zuen Artetxe kalean. Goizeko 2:45ean jaso zuten udaltzainek auto bat sutan zegoela zioen deia, eta bertaratu zirenean, suhiltzaileei deitzea erabaki zuten, sutearen neurria handia zelako. Seat Ibiza autoak jasan zituen kalterik handienak, baina alboan aparkatuta zegoen beste auto batek ere izan zituen kalteak, eta lurreko galipota ere hondatu egin zen, berotasunaren eraginez. Udaltzaingoko iturriek adierazi dutenez, oraindik ez dakite zein izan zen sutearen arrazoia, eta Er-tzaintza ikertzen ari da,

Ate irekiak antolatu dituzte biharko, IMHko Txandakako Ingeniaritza eskolan

IMHko Txandakako Ingeniaritza eskolan *Prozesu eta produktu berrikuntzaren ingeniaritza* gradua jarri dute martxan, eta bihar egingo dute aurkezpena. Ate irekien jardunaldia antolatu dute gradu berriari buruzko informazioa emateko, eta bide batez, ikastetxea bisitatzeko aukera ere egongo da. Goizeko 11:00etan hasiko da ekitaldia, IMHn.

Gurasoentzako kafe tertuliak egingo dituzte bihar, Gaztelekuan

Elgoibarko Gaztelekuak gurasoentzako kafe tertulia antolatu du biharko. *Zer egiten du nire seme-alabak zapatu arratsaldean?* izango da gaia, eta Elgoibarko gazteek larunbatetan izaten dituzten aisaldi ohituren inguruan hitz egingo dute. Saioa 11:30ean hasiko da. Gaztelekuko hezitzaileek gurasoen partaidetza eskatu dute, eta bide batez, gurasoentzako bloga martxan jarri dutela gogorarazi dute: www.gaztelekua.blogspot.com

Askapenako brigaden aurkezpena, egunean

Askapena taldeak udako brigaden aurkezpena egingo du datorren egunean, martxoak 15, Gaztetxean. 20:00etan hasiko da ekitaldia, eta interesatuak apirilaren 1era arteko epea izango dute brigada horietan izena emateko.

Ekonomia eta finantza kontrolaren ikastaroa enpresentzat

Debegesak ekonomia eta finantza kontrolari buruzko ikastaroa antolatu du martxoaren 14rako, bereziki, Debabarreneko eskualdean sortu berri diren enpresentzako. Partaideek enpresa kudeatzeko funtsezko kontzeptuak landuko dituzte. Informazio gehiago, 943 820 110 telefonoan.



“Garena izaten jarraitzeko ez daukagu zertan ukatu bestea”

ESTEBAN ANTJUSTEGI

FILOSOFIAN DOKTOREA ETA EHUko IRAKASLEA

Agirre Lehendakaria saria irabazi du Esteban Antxustegik bere *Actualidad y retos de la filosofía política* lanarekin. Zientzia politikoaren eta pentsamendu politikoaren alorreko lanak bultzatzeko saria da lehendakari ohiaren izena darimana. Antxustegi filosofian eta zuzenbidean lizentziatua izateaz gain, filosofian doktorea eta nazionalismoan aditua ere bada. Euskal nazionalismoaren inguruko lan ugari egindakoa, Sabino Aranaren inguruan egin zuen bere doktoretza tesia. Jaso berri duen saria hizpide hartuta, politika, nazioa eta Euskal Herria izan ditugu berriketa-gai horietan aditua denarekin.

Agirre Lehendakaria saria jaso duzu. Zer esan nahi du zuretzat sari honek?

Errekonozimendu bat da. Zientzia edo pentsamendu politikoan egiten diren hausnarkeak saritzen direlako. Eta, gainera, gustatzen zait sariak Jose Antonio Agirreren izena izatea, politiko errekonozitu bat izan zelako, eta oso egokia iruditzen zait bere izena aldarrikatzea, gerra garaian edota exiliotik lehendakari moduan egin zuen lanarengatik, eta bere testuetan ere gure historia hurbilerako aportazio interesgarri asko utzi zituelako. Beraz gustatzen zait sariaren izena eta baloratzen duena.

“Hitz bat baldin badago polisemikoa, hori Nazio hitza da”

Nazionalismoa eta nazioa landu izan dituzue sari. Estaturik gabeko nazioa da gurea. Kultur nazio izaera aitortzen digute, baina nazioa da gurea?

Zergatik ez? Hitz bat baldin badago polisemikoa, hori Nazio hitza da. Nazioa modu askotara ulertu daiteke: nazio kulturala, nazio linguistikoa, ohiturazko nazioa, nazio politikoa... gauza asko. Alde batetik, esaterako, nazioaren kontzeptuaren inguruan egondako eztabaida garrantzitsu bat nazio iraultzailearen inguruan egondakoa izan da. Frantziar iraultzarekin sortu zen nazio kontzeptua, hau da, proiektu politiko bati atxikitutako nazioarena non inportanteena den balore politiko konpartitu batzuk izatea. Horretan hausnarketa handia egin daiteke nazio frantsesa eta beste hainbat nazio iraultzailek izan zuten egituraren inguruan; batez ere, erregimen zaharren kontrako egitura politiko berria direlako. Eta beste alde batetik tradizio erromantikoa dago: nazioa kultura bati, ohitura batzuei, edo hizkuntza bati atxikituta ageri zaiguna. Batean, herritargoak protagonismo handiagoa dauka, eta herritarren nazioaren kontzeptua nagusitzen da, herritarren nazio dinamikoa, eta bestean, herri kontzeptua: herri historikoa, herria historikoki nola joan

den gauzatzen, horren inguruan dagoen atxikimendua, naturalismoa, hizkuntza, kultura, ohiturak, izaera etabar, eta hor eztabaida handia dago.

Nik beti defendatu izan dut herritarren nazioa. Ahaztu gabe nondik gatozen eta kultura eta horrelakoei erreparatuta, baina XXI. mendean herritargoaren sendotzea proposatu izan dut nik beti.

Hortaz, zure ustez nazionalismoak XXI. mendeko mundu globalizatu honetan ere badauka zentzua.

Mundu globalizatua mundu ekonomikoa da, mundu finantzieroa da, mundu teknologikoa da. Baina, globalizazioaren bilakaera ez da izango leku guztietan berdina, eta gainera, globalizazioak ekartzen dituen ondorioak gauzatu ahal izateko eta hazkunde ekonomikoa bideratzeko nolabaiteko bilakaera espezifikoak egongo dira. Identitateak ez dira desagertuko inola ere ez; hain zuzen ere, etorkizuna identitatea mantentzen duten komunitateek dutela uste dut. Baina identitate hori irekia eta integratzailea izatea ezinbestekoa da. Gertatzen dena da, gaur egun globalizazio hitzarekin betetzen zaigula ahoa, baina globalizazioa ekonomikoa da. Elkartasuna ez da globalizatu, eta globalizazioak ez du esan nahi identitateak desagertuko direnik; kontua da identitate desberdinak nola egongo diren elkarlotuta. Nik aldarrikatzen dudana da identitate baztertzailak ez egitea, baizik eta identitate konpartituak. Hau da, mundutarrak izango gara, europarrak izango gara, estatuan kokatuak egon gaitzeko, euskaldunak gara etabar. Identitatea gizakiaren elementu ezinbesteko bat da, eta identitatea hor dago eta beti egongo da; hori ondo kudeatzea da inportanteena. Eta identitate horretan ez izatea jendea baztertua, baizik eta, identitate integratzailea izatea.

Gure historiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu euskaldunek jaso izan dituztela inguruan izan dituzten beste errealitateak beraiena eguneratzeko. Hori da hain zuzen ere, nire ustez, egiten jarraitu behar duguna. Eta globalizazioa hor dago, eta hori errealitate teknologiko, ekonomiko, eta finantziero bat da. Baina horrek ez du esan nahi globalizazioaren garapena, edo ekonomiarena edo teknologiarena, beti berdina izango denik leku guztietan. Leku bakoitzean bere ezaugarri espezifikoak

izango ditu. Eta identitatea mantentzen duen egitura batek hobeto erantzungo die globalizazioak planteatzen dituen erronkei gizarte integratu bat izango delako, eta ez gizarte zaitu bat. Hori lortuz gero, gizarteko norbanakoak sentituko dira errealitate berdinen parte, eta errealitate hori globalizaziora egokitu behar denean hobeto egokituko da, eta bertako partaideek konpartituagoa sentituko dute bilakaera hori. Identitate sendoa baldin badaukagu eta guk, euskaldunok, sentitzen badugu badaukagula lekua mende honetan eta hurrengo mendeetan, hori bideratu egin behar dugu. Baina hori egin behar dugu ahalik eta adostuena, ahalik eta zabalena, eta ahalik eta integratuena.

“Globalizazioak ez du esan nahi identitateak desagertuko direnik”

Bada, identitatea hor egongo dela diozu, ideologiak existitzen dira, eta desberdinen arteko adostasuna lortu behar dugu... nola egiten da hori?

Gizakiok diferentiek gara. Gizakiok modu diferente batean pentsatzen dugu. Eta ideologia? bakoitzak dauka bere pentsaera, alderdi politikoei daukate beraien ideologia diferentea, talde sozialek ere berdin, baina politika ezin dugu horrela erabili. Politika ez da laguna eta etsaiaren arteko jolasa; nik irabazteko bestea suntsitu beharrik ez du balio; bestea ere nire komunitateko zati bat delako. Orduan, nik horren inguruan adostasuna proposatzen dut, adostasuna delako nik ez ezik besteek ere zer esana dutela onartuta aurrera ateratzeko modua. Hau da, ideologismo hutsa eramaten badugu politikara, irabazten duenak bera bezala pentsatzen dutenentzat bakarrik gobernatuko du eta guztientzat gobernatu beharra dauka. Partaide garen guztiok eraiki behar dugu komunitate politiko bat.

Egitura antropologikoan gizakiak ez gara berdinak, eta esan bezala, desberdin pentsatzen dugu. Baina, pentsamendu horrez gain, herritarren kontzeptua lantzen baldin badugu herritarra subjektua, gizabanakoa izateaz gain, guztien arteko adostasuna onartzen duen herritarra ere izango da. Uler-tu behar dugu herritarren partaidetzaren bidez adosten baldin bada zerbait, guztientzat ona den hori norberarentzat ere ona izango dela, nahiz norberaren ideologiarekin akaso bat ez etorri. Ideologismo hutsak gizarteko zatiketa ekarri dezake, eta komunitate zati-tuek ez daukate etorkizunik. Politikoei ere eskatzen diet adostasunaren eta herritargoaren ikuspuntu hori herri baten etorkizunaren in-guruan dihardutelako. Desberdinen artean proiektu konpartituak gauzatzea erronka izan behar da guretzako. Uste dut garena izaten jarraitzeko ez daukagula zertan ukatu bes-tea. Integrazioa posible bada behintzat ho-beto izaten delako. Baina kontuz, integrazioa ez da derrigortzea; intergrazioa eztabaida politikoaren bidez adostasuna bilatzen saia-tzea da, eta hori lortzen duen komunitate ba-tek, lortzen ez duenak baino dezente etorki-zun hobea izango du.

“Politika elkarrekin bizitzeko daukagun modua da”

Politikoak aipatu dituzu. Euren sinesgarritasuna behera doa inkesten arabera. Emango dizkizazu bi arrazoi politikan sinisteko?

Noski, jakina emango dizkizudala; arrazoi guztiak. Nik ulertzen dudana bezala politika elkarrekin bizitzeko daukagun modua da. Polis kontzeptua, hiriaren kontzeptua, fundamen-tala da. Norbanakoaren gainetik egon behar da zerbait konpartitua, eta hori historikoki polisa izan da, hiria. Hori eraiki egin behar da, gauzatzen jakin behar da, eta nire ustez lan hori erronka apasionante bat da. Gertatzen da hori luzera begirako ikuspegi batetik egin behar dela, etorkizunari begira jardun beha-rra dagoelako. Mundua ez delako gurekin

hasi eta bukatzen. Politikan dihardutenek zerbitzeko bokazioa dute. Politika ez da poli-tikoa aprobetxatzeko, serbitzeko baizik. Eta politikoei erakutsi behar dute konpromisoa gobernatzeko duten herriarekin eta ez baka-rrik beraien alde egin dutenekin. Eta espe-rientzia ugari daude, adibidez, sistema an-glosajoiaren politikoei parlamentuan lantzen ari diren gaien berri ematen diet herritarrei zuzenean, partehartzea bultzatzen da, erre-ferendumak bultzatzen dira. Hau da, botoa ematen dutenen eta botoak jaso dituenaren artean lotura hori mantentzen bada, nik uste dut politika bizirik dagoela.

Politika bilakatzen denean gaitz bat, ja-san behar dena, hori ez da politika. Kontuan izan behar da herritargoaren kontzeptua erregimen zaharraren kontrako kontzeptu bat dela; feudalismoaren kontrako: herrita-rrak eskubideak dituzten gizaki batzuk dira, baina elkarrekin etorkizuna gauzatu nahi du-tenak. Ba hori, politika hori aldarrikatzen dut. Bestela politika onartzen baldin badugu gaitz bat bezala, egongo ginateke berriz sistema feudal batean, non agintzen dutenek agindu-ko duten eta ezingo den ezer egin. Eta nik neuk beti egingo dut horren kontra, uste du-dalako politika zerbait aktiboa dela; egunero-ko gaien erantzuten jakitea, adostasunak bila-tzea, errespetatzea diferente pentsatzen du-tenak, etabar. Hori da politika nire ustez ,eta hori egiten dutenak beti babestu behar ditu-gu lan gogorra eta garrantzitsua delako, eta horregatik diot, bokazioa izan behar dute poli-tikoei, baina zerbitzeko bokazioa, eta ez politikatik beraiek zerbitzekoa.

Zure tesiaren laburpen gisa Abertzaletasuna-ren auzia: independentzia ala autonomia izenburuko liburua kaleratu zenuen. Ez da auzi berria. Nazioa eraikitzerakoan abertzale-tasunak abertzaleak batu ala zatitu egiten di-tu?

Euren burua abertzaletzat dutenak ere senti-tu daitezke gustura nazio integratu batean. Inportanteena nazioa egitea da, eta gero na-zioak estatu izan nahi badu, independente izan nahi badu, erabakiko du. Ahalik eta ele-mentu amankomun gehien topatu behar di-tugu; hori da egin behar duguna. Nazioa ba-gara, eta jarraituko dugu izaten. Beste kontu bat da zer nolako egitura politikoa izango du-gun une bakoitzean. Nazioa dagoen bitarte-an etorkizunaren atea beti irekita egongo da eta beti gauzatu daiteke. Arazoa da eztabai-

da batzuegatik nazioa desagertzea. Hori izango litzateke problema. Nazioa finkatzea inportantea, da hori da, nire ustez, naziona-lismoak izan behar duen erronka garrantzitsu bat. Inork ez dezan zalantzan jarri nazio bat existitzen dela.

“Nazioa bagara, eta jarraituko dugu izaten”

Erronka aipatu duzu. Ez da bakarra izango. Zeintzuk dira Euskal Herrian politika arloan aurrera begirako erronkak?

Euskal herritargo sendoa osatzea; herritar-goia gizabanako hobetua bezalakoa da. In-portantea izango litzateke, nire ustez, identi-tate konpartitua gauzatzea denon artean. Erronka bat izango litzateke herritargo sozial bat gauzatzea. Herritargo politiko edo zibila ez da nahikoa; garrantzitsua da guztiok bal-dintza materialak izatea bakoitzak gure gara-pen pertsonala eta kolektiboa izateko. Ga-rrantzitsua litzateke leialtasun politiko handi-goia izatea politikan, leialtasun instituzionala izatea, erakunde demokratikoak sendotzea. Nik uste dut erronkak ildo horretan doazela gaur egun, eta politikan pedagogia egitea ere, gizarte zibila bultzatzea, asoziazionis-moa, partehartzea... Nik uste dut horiek gauzatzen direnean, klase politikoak horiek erantzunak ematen dizkienean, eta pedago-gia egiteko prest dagoen neurrian, gauzak ondo joango direla. Arazoa da ulertzea hau gerra bat bezala, eta batzuek irabazita bakea etorriko dela pentsatzea. Horrela ez delako sekula bakerik etorriko.

Politika profesioa eta bokazioa da. Politika da hitz potolo bat, hitz handi bat, hitz inportante bat. Eta hitz inportante hori aldarrikatzen dut nik. Askotan politikarietan erortzen gara poli-tika ulertzerakoan, eta nik politika letra larri aldarrikatzen dut. Politika, polisa: hiriaren eraikuntza.

Otsailean...

JAIOTAKOAK



Arai Esnaola Urbola
Otsailak 10
Igor eta Ane




Jare Iturriagaetxebarria
Elorza Otsailak 8
Asier eta Mirari



Julen Mekolalde Pampin
Otsailak 12
David eta Laura



Sara Alcibar Becerra
Otsailak 15
Jose Manuel eta Sandra



Enara Martinez Plaza
Otsailak 18
Miguel Angel eta Amaia



Ekhi Del Pino Segundo
Otsailak 18
Aitor eta Isabel



Jakes Gurrubxaga
Iriondo Otsailak 23
Ion eta Andrea



Helenka Revert Mateos
Otsailak 18
Ion eta Vanesa



Leire Ebaniz Bereziartua
Otsailak 7
Sugar eta Lore

Oier Gabilondo Herrero
Otsailak 22, Jesus Mari
eta Maria Antonia

Xabi Bao Puelles
Otsailak 21
Luis Martin eta Eva

Aimar Blanquez Martins
Otsailak 23
Felipe eta Iratxe

Unai Chamorro Morta
Otsailak 26
Javier eta Leyre

HILDAKOAK

Antonia Egaña Alberdi • 99 urte • Otsailak 1
Purificacion Setien Gonzalez • 79 urte • Otsailak 1
Petra Zubiaurre Urkiri • 88 urte • Otsailak 12
Carmelo Leon Garcia • 66 urte • Otsailak 13
Alejandra Arregi Arregi • 88 urte • Otsailak 13
Valentin Ibarluzea Arano • 74 urte • Otsailak 14
Pedro Agirregomezkorta Ibarluzea • 81 urte • Otsailak 15
Jose San Martin Maguregi • 82 urte • Otsailak 22

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira
943 744 112 telefonora edo bidalie-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.
Argazkia jartzeagatik **3 €** ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, **4 €**.

Giro onean ospatu dituzte mendaroarrenk Aingeru Guardako jaiak

Irrintzi, dema, bertsoak eta kirolak izan dira besteak beste, asteburuan

Martxoaren 1ean izaten da Aingeru Guardako eguna, eta horren harira, Aingeru Guardako jaiak ospatu dituzte Mendaron. Herri Kirolak, meza, Arnoateko igoera eta bertso afaria izan dira, besteak beste, asteburuan. Zapatuan, Arnoateko korrika igoera izan zen ekitaldirik jendetsuena, eta domekan, berriz, bertso bazkaria.



Unai Salegiri tokatu zitzaion Plaza auzoko produktuz berriko otarra. Silberio Txurrukak eman zion saria.



26 lagunek hartu zuten parte Arnoatera igoeran.



Andoni Egañak eta Aitzol Urainek jardun zuten bertsoan Aizpe elkartean, eta ez zen umorerik falta izan.



Arrate Iriondo irrintzia botatzen, eta alboan Mari Jose Larrañaga, lehiaketako irabazlea.



Igon Manzisidor debarrak irabazi zuen Arnoateko igoera, eta lehen mendaroarra, Jon Larrañaga izan zen.

‘Bicefalopedia’ diskoa kaleratu du Mendaroko Munlet bikoteak

Mendaroko Munlet bikoteak hirugarren diskoa kaleratu du, *Bicefalopedia* izenburupean. Ina Herr Professor eta Anita LadyFingers bikoteak osatzen du Munlet, eta disko berri hau beraiek biek ekoiztu dute, El Cubo estudioan. Musika elektronikoa, punka eta esperimentazioa dira disko berri honen osagai nagusiak. Formatu digitalean, biniloan eta CDan argitaratu dute *Bicefalopedia*, eta interesatuak hainbat modu dituzte diskoa eskuratzeko: Hilabete honetan, esate baterako, prezio berezian erosi daiteke diskoa munlet.bandcamp.com helbidean.

Atzo bertan egin zuten mendaroarren diskoaren aurkezpena Bilboko Kafe Antzokian, eta dagoeneko iragarri dituzte zuzeneko emanaldiak. Bihar, martxoak 10, Eibarko gaztetxean joko dute eta hilaren 17an, Valentzian eskainiko dute kontzertua. Apirilean eta maiatzean ere eskainiko dituzte zuzenekoak, Bermeon, Gasteizen eta Madrilan.



Santana jaiak antolatzeko bigarren bilera bat deitu dute martxoaren 20rako

Martitzenean, hilaren 6an, egin zuten Santana jaiak antolatzeko lehenengo bilera, baina jende gutxi agertu zenez, bigarren bilera bat deitu dute. Martxoaren 20an izango da bilera hori, arratsaldeko 20:30ean, udaletxean. Herritar guztien gustuko jaiak antolatzea nahi du Udalak, eta horretarako jai batzordea osatu nahi du, herritarren ideia eta proposamenak jasotzeko. Lehenengo bilerara zortzi lagun “bakarrik” agertu zirela azaldu du Sonia Garcia alkateak, eta bigarren bilerara jende gehiago agertzea nahiko luketela azaldu du.

‘Prest gaude’ antzezlanaren bihar, San Agustin kultur aretoan

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, *Prest Gaude* antzezlanaren antolatzaileek Mendaroko Udalak biharko. Lakrikun antzerki taldeak aurkeztuko du lana, eta Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaizola eta Idoia Uranga izango dira aktoreak. Greban gaude izenarekin hasi zuen taldeak trilogia, eta biharko trilogia horren bigarren zatia da. Umorea da nagusi obra honetan, eta emakumea izango da protagonista. Antzerkia 19:00etan hasiko da, San Agustin kultur aretoan.

Arduraz gidatzeko tailerra eskainiko dute bihar

IKsareak antolatuta, arduraz gidatzeko tailerra eskainiko dute bihar, goizeko 9:30etik 13:30era bitartean, Mendaroko udaletxean. Norbaitek tailer horretan parte hartzeko interesa baldin badauka, 943 744 132 (Leire Alberdi) telefonora deitu dezake, eta informazio gehiagorako www.zerikasi.com webgunea kontsultatu daiteke. IKsarea Gipuzkoako prestakuntza sarea da, eta herritar guztientzako formazio aukerak gerturatu eta hiritartasun aktiboa bultzatzea da proiektuaren asmoa.

Ibaia eta urari buruzko erakusketa udaletxean

Ibaialde programaren barruan, ibaia eta urari buruzko erakusketa jarri dute ikusgai udaletxean. Berderatzi panelez osatu dute informazioa, eta ura eta ibaia zaintzeko informazioa zabaltea da helburua. Goizez, 8:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai, eta arratsaldez, 17:30etik 20:00etara.

Erretratu zaharra



1952

Aste honetako erretratu zaharra Joaquin Rodriguez "Piper"-ek ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1952. urtean aterata dago, King-Kong inguruan. Erretratuaren eskumako aldean Iriondo jauregiko ortuak daude, "Alkortaneko ortuak" bezala ezagutzen zirenak, eta argazkiaren ezkerreko aldean Iriondoneko jauregia zegoen. Ikusten den bezala, denbora ez da alperrik pasatzen, eta gaur egun erabat aldatuta dago ingurune hori. Bizikleta gainean ageri den mutil gaztea Angel Iriondo da.



ESKERTZA

JOSE SAN MARTIN MAGUREGI

2012ko otsailaren 22an hil zen.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, martxoak 11,
goizeko 10:30etan Sallobenteko elizan.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

CRESCEN ZABALA ARANBERRI

2011ko martxoaren 9an hil zen, 78 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 10,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



'50 urte, 50 mendi' ekimena aurkeztu du Elgoibar Ikastolak, 50. urteurreneko ekintzen barruan

2012. urtean Elgoibar Ikastola 50 mendi gailurretan egotea da helburua

Elgoibar Ikastolak 50 urte egingo ditu aurten, eta ospakizunen artean, *50 urte, 50 mendi* ekimena jarri dute martxan. Elgoibar Ikastola Euskal Herriko mendi gailurretara zabaltzea da egitasmoaren helburua. Antolatzaileek badakite ez dela erraza izango, eta "erronka" hori betetzeko, herritarren laguntza eskatu dute. Ikastolaren webgunean (www.elgoibarikastola.eu) jarri dituzte aukeratutako 50 mendien izenak. Parte hartzeko mendi bat aukeratu eta urte bat aukeratzea nahikoa da. Ondoren, mezu bat bidali behar da 50urteurrena@elgoibarikastola.net helbidera, arduradun guztiak jakinaren gainean egon daitezten. Izen-ematea bakarka edo taldeka egin daiteke, izan ere, gailur bakoitzean ahalik eta jende gehien batzea baita antolatzaileen helburua.

Zailtasunak gainditzeko erronka

Egitasmo honen arduradunek mendia zailtasunarekin lotu dute. Euren esanetan, jendea bildu egiten da mendira igo eta zailtasunak gainditzeko, eta Ikastolaren 50 urteko ibilbidea ere horrela-



koa izan dela aipatu dute. Elkartasunez zailtasunak gainditu dituzte urte hauetan, eta aurrerantzean ere bide beretik jarraituko dute.

Elgoibarko eta Mendaroko hainbat emakumek hartu dute parte Donostiako Lilatoi lasterketan



Ezkerrean, Susana Azpilikueta, eta eskuman, Pilar de la Lama eta Lourdes San Martin.



Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Lilatoi lasterketa izan zen joan zen domekan, Donostian. Bi mila emakumetik gora aritu ziren bost kilometroko ibilbidean korrika, emakumeen eskubideen alde, eta tartean, Elgoibartik eta Mendarotik joandako hainbat emakume. Elastiko arrosaz jantzita, kolore biziko mareak hartu zituen Donostiako kaleak. Alboko zutabeetan dituzue Elgoibarko eta Mendaroko lasterkarien denborak.

Sailkapena (Elgoibar)

- | | |
|------------------------|-------|
| 1. Pilar Arriola | 21:45 |
| 2. Junkal Arriola | 22:14 |
| 3. Lourdes San Martin | 22:56 |
| 4. Idoia Oiarzabal | 23:26 |
| 5. Pilar de La Lama | 24:15 |
| 6. Andrea Arriola | 26:06 |
| 7. Leire Garate | 28:06 |
| 8. Ane Odria | 28:06 |
| 9. Eider Iriondo | 28:10 |
| 10. Amaia Polo | 28:37 |
| 11. Yoana Cabezudo | 29:20 |
| 12. Ane Iriondo | 29:32 |
| 13. Beatriz Aizpiri | 31:53 |
| 14. Miren Agirre | 32:56 |
| 15. Marian Arriola | 33:23 |
| 16. Mapi Fernandez | 33:23 |
| 17. Susana Azpilikueta | 34:20 |

Sailkapena (Mendaro)

- | | |
|------------------------|-------|
| 1. Virginia Santamarta | 25:20 |
| 2. Maitane Tejero | 32:19 |
| 3. Cristina Garate | 32:45 |
| 4. Mari Mar Cebrian | 34:12 |
| 5. Idoia Larrañaga | 34:23 |
| 6. Irene Elorza | 34:23 |
| 7. Maite Martija | 34:30 |
| 8. Arantxa Cebrian | 34:31 |
| 9. Anto Gallastegi | 35:41 |
| 10. Aida Cruz | 40:16 |

Bigarren postuan sailkatu da Iñigo Lariz Azpeitiko Zuzenien mendi lasterketa bertikalean

Bere marka propioa ondu du korrikalari elgoibartarrak, 30:49 denborarekin

Euskal Herriko Lasterketa Bertikalen Zirkuituko lehen proba, Zuzenien mendi lasterketa, jokatu zen domekan Azpeitian, eta Iñigo Lariz elgoibartarrak bigarren egin zuen, irabazlearengandik minutu eta erdira.

Ezkerregegi baserriaren aurretik irten, eta 2.800 metroko bide maldatsua igo ondoren, Izarraitzera, Xoxoteko San Inazioaren irudiaren ondoraino igo behar izan zuten parte hartzaileek. Lur zoru irristakorrek proba izugarri zaildu zuela azaldu du Iñigo Larizek, eta ibilbidearen egoera ikusita, denbora ona egiteko aukera gutxi izango zituela uste zuen elgoibartarrak. Azkenean, baina, proba honetan zuen marka pertsonala ondu zuen Larizek, 30 minutu eta 49 segundoko denborarekin. Mendi lasterketen denboraldiko estreinako proban egindako lanarekin "oso oso gustorra" geratu dela adierazi du elgoibartarrak.

Partaidetza handia

Guztira 167 neska-mutiek hartu zuten parte Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatutako proban. Eta, kantitatez bakarrik ez, kalitatez ere maila handiko kirolariak batu ziren domekan, Azpeitian. Han izan ziren, esate baterako, mendi lasterketetako munduko kopako iazko bi txapeldunak: Oihana Kortazar (Elgeta) eta Luis Alberto Hernando (Burgos, Espainia).



Helmugan, Ionut Alin Zinca errumaniarra izan zen onena, 29:19 denborarekin, eta Larizen atzetik sailkatu zen lasterketa irabazteko faboritorik argienetakoa, Luis Alberto Hernando, mendi lasterketetako munduko kopako iazko irabazlea, eta Europako txapelduna (goiko argazkian hirurak).

Ainhoa Lendinezek irabazi du Eibarko duatloia



Zapatuan jokatu zen Eibarko duatloia, eta emakumezkoetan, Ainhoa Lendinez izan zen onena. Bost kilometro korrika, 25 kilometro bizikletan eta beste 2,5 kilometro korrika egin behar izan zituzten partaideek. Korrika galdutako denbora bizikletan berreskuratuz Lendinezek, eta bera izan zen 14 emakumezkoen artean onena, 1:11:17 denborarekin. Gizonezkoen proban hiru elgoibartarrek hartu zuten parte, eta Jose Antonio Ruiz izan zen herritarren artean bizkorrena. Sailkapen nagusiko 38. postuan sailkatu zen korrikalari elgoibartarra, 1:05:44 denborarekin. Jon Agirrebeña 58. lekuan iritsi zen 1:07:15 denborarekin eta Javi Fernandezek 92. egin zuen, 1:10:28 denborarekin.

Pirinioetara irteera antolatu dute martxoaren 17rako

Morkaiko mendizale elkarteak Pirinioetara irteera antolatu du, martxoaren 17-18 astebururako. Mendi eskian edo oinez ibiltzeko ibilbideak prestatu dituzte antolatzaileek. Mendi eskian dagokionean, ibilitakoen zako eta hasi berrientzako ibilbideak prestatu dituzte. Raketekin mendian ibiltzeko, bestalde, izena ematen dutenen arabera ibilbidea prestatuko dute antolatzaileek. Mendi taldekoek jakinarazi dute materiala alokatzeko aukera badagoela, eta horregatik, izena lehen bailehen ematea gomendatzen dute. Interesatuek astelehen eta ostegunetan Errosario kaleko egoitzan (19:00-20:30) eskuratu dezakete informazio gehiago, edo emailaz, morkaiko@morkaiko.net edo pirurikeriak@gmail.com helbideetan.

Pilota Eguna Plaza Handian jokatuko dute bihar

Laskurain eta Peñagarikano izango dira sari banaketan



Elgoibar Ikastolak antolatuta, Pilota Eguna egingo dute bihar, eta aurten Ikastolak 50 urte egingo dituzte, euririk egiten ez badu behintzat, Plaza Handian egingo dute pilotaren jaia. Euria egiten badu Ikastolako frontoian jokatuko dute, urtero bezala. 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek hartuko dute parte, eta guztira, hamasei partida jokatuko dituzte. Horrez gain, 50. urteurrena dela-eta, pilotan dabiltzan ikasle ohiek ere jokatuko dute partida bat: Asier Lizarralde eta Haritz Arribillag osatutako bikoteak Iker eta Igor Txurrukaren kontra jokatuko du. Eguerdian egingo dute sari banaketa, eta aurten bi pilotari profesional gonbidatu dituzte: Laskurain eta Peñagarikano.

Igoera faseko lehen partida irabazi egin du Mekatar xake taldeak

Lehenengo mailarako igoera fasea jokatzen dihardu Elgoibarko Mekatar xake taldeak, eta lehenengo partida irabazi egin du, 3-1 Fortuna taldearen kontra. Lau partida jokatu zituzten lehenengo kanporaketan, eta bi berdinketa eta bi garaipen lortu zituzten. Momentuz, sailkapeneko bigarren postuan daude elgoibarko xakelariak.

Lauko eskubaloi taldea Euskadiko txapelketan



Eskubaloi denboraldia amaitzeko bi jardunaldiren faltan lortu du Sanloko Lauko taldeak Euskadiko txapelketako finalerako sailkatzea. Hortaz, datozen bi partidak galdu arren, Elgoibarko neskek Euskadiko eskubaloi txapelketa jokatuko dute, jubenil mailan.

Senior taldeek, bestalde, igoeraren bila jarraitzen dute, eta asteburu honetan ere partida garrantzitsuak jokatuko dituzte Olaizaga kiroldegian. Klubak jarraitzaileei dei egin diete, taldeak animatzera joateko.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Basconia 2 (3. maila)
Hondarribia 2 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Lengokoak 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 6 – Ilintxa 1 (Kad. A)
Eibartarrak 0 – Elgoibar 3 (Kad. B)
Elgoibar 1 – Antiguoko 5 (Ohorezko inf.)
Allerru 3 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)
Aretxabaleta 2 – Elgoibar 5 (Aleb.)
Elgoibar 1 – Amara Berri 1 (Neskak)

PILOTA

Lagunak 7 – Gazteleku 22 (2. mailako kad.)

ARETO FUTBOLA

Burgos 3 – Concepto Createch Elg. 2 (2B)
Tolosala 3 – King Kong Elg. 4 (Jub.)

ESKUBALOIA

Askartza 26 – Alkorta Elg. 27 (Sen. mut.)
Jarrilleras 24 – Tecnifuelle Elg. 24 (Sen. neska.)
Usurbil 24 – Lauko Elg. 25 (Jub. neska.)
Egia 42 – Grupo Eibar Elg. 27 (Kad. mut.)
IMH Elg. 29 – Kukulaga 29 (Kad. neska.)
Astigarraga Elg. 18 – Legazpi 19 (Kad. neska.)
Udarregi 25 – Bankoa Elg. 23 (Inf. mut.)
Txariduna Elg. 24 – Amenabar 24 (Inf. mut.)
Ikus Elg. 19 – Aiala 16 (Inf. neska.)
Leizaran 21 – Aterpe Elg. 12 (Inf. neska.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10

12:30 Elgoibar – Urnieta (Kad. A)

16:00 Elgoibar – Bergara (Erreg.)

Domeka, 11

10:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

10:00 Elgoibar – Amaiak Bat-Mutriku (Aleb.)

12:00 Elgoibar – Mariño (Jub.)

16:00 Elgoibar – Urnieta (Inf. txiki)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10

10:00 Grupo Eibar Elg. – Berezo Aloña (Kad. mut.)

11:30 Beristain Elg. – Ordizia (Jub. mut.)

16:00 IMH Elg. – Aiala Zarautz (Sen. neska.)

17:30 Tecnifuelle Elg. – Aiala Zarautz (Sen. neska.)

19:00 Alkorta Elg. – Soraluze Bergara (Sen. mut.)

Domeka, 11

10:45 Aterpe Elg. – Ereintza A (Inf. neska.)

PILOTA

Barxakua, 9

21:30 Lagunak – Gazteleku (1. maila jub.)

22:15 Lagunak – Eibar (1. maila nag.)

23:00 Lagunak 1 – Lagunak 2 (Pala)

Domeka, 11

12:00 Lagunak – Bergara (1. maila jub.)

IBON LARRAÑAGA

Belceblues taldeko ahotsa eta gitarra

Belceblues taldeak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxeko Sotoan Sinuõsek antolatuta. *Diabolus in musika* izeneko lan berria aurkeztuko du Bergarako blues taldeak. Asier Elorzak, Oihan Vegak eta Ibon Larrañagak osatzen dute taldea, eta Larrañagarekin egon gara lan berriaren eta gaurko kontzertuaren inguruan jarduteko. 23:00etan hasiko da kontzertua, baina 22:45etarako zabalduko dituzte sotoko ateak Sinuõseko arduradunek.



Ibon Larrañaga, Asier Elorza eta Oihan Vega Belcebluesen kontzertu batean.

“Ziur gaude kontzertura gerturatzen den jendea ez dela damutuko”

Lan berria kaleratu berri duzue, eta Elgoibarren aurkeztuko duzue gaur. Zer berrietasun dakartza lan berriak?

Alde batetik, musikaren konposizio aldetik konplexutasun handiagoa dakar: armonia, melodia eta teknika aldetik (bai instrumentala eta bai ahotsezkoa) heldutasuna nabari da, eta kontzeptu horietan aurrerapauso bat egiteko arriskuak ere gainditu ditugula nabari da; zainetan daramagu. Bestetik, diskoa jantzi duten kolaborazio garrantzitsuak dakartza disko honek: aurkezpenik behar ez duten Jon Gurrutxaga eta Aitor Gorosabel, Enrike Txurruka pianista, Isra Santamaria teklista....banguardiako musika-riak denak.

Jon Gurrutxaga elgoibartarrak ere hartu du parte lan berri horretan. Zuekin joko du gaur?

Jonek eta nik orain dela 14 urte ezagutu genuen elkar baina sekula batera jo gabe geunden. Urte asko pasa eta gero, disko honek elkarrekin zerbait egiteko aukera aproposa eskaini digu: seguraski diskoko abesti politena dena grabatu du gurekin, eta bere ahots miresgarriaren konstantzia utzi digu. Musikari oso ona, eta pertsona hobea da. Gaur gurekin joko ote duen? Beno, sorpresatxo bat edo beste egongo da, baina etorri egin beharko du dena jakin nahi duenak!

Blues estiloa da zuena. Ez da horren ohikoa. Beste musika estiloekin alderatuta, nolako jarraitzaileak ditu bluesak?

Gure estiloak bluesean dauka jatorria, baina power blues moduan katalogatzen dugu, eta countryak, jazzak eta rockak ere kabida daukate gurean. Dena den, egia da bluesa ez dela ohikoa ez; eta are gutxiago gu bizi garen inguruan, baina gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Adin guztietakoak datoz; benetan, espektro guztietako jendea ikusten dugu gure kontzertuetan. Ikaragarria da!

Zuek ez zarete, baina, kontzertuak eskaintzen jarduten duen taldea soilik. Zer da Blues kontzertu didaktikoa?

Jendea bluesera gerturatzeke ahalegin didaktiko bat da; bluesaren historia eta etorkizunaz hitzegiten dugu argazki eta bideoen bitartez, eta tarteka abesti batzuk jotzen ditugu zuzenean. Dibertigarria da; Oihan Vegak aurkezten du eta harrera ona edukitzen ari gara ikastetxe eta kultur aretoetan.

Zer aurkituko du gaur zuek entzutera, sotora gerturatzen denak? Euskaraz abestutako power blues indartsua eta teknikoa. Gure abestiak eta bertsio batzuk uztartuko ditugu eta ziur gaude gerturatzen den jendea ez dela damutuko. Gainera, sorpresatxo bat ere badaukagu prestatuta.

‘Como como coco me descoco poco’ antzezlan izango da ikusgai gaur iluntzean Herriko Antzokian

‘Katillukadak’ umeentzako txotxongilo emanaldia eskainiko dute domeka arratsaldean

Antzerki-asteburua egokitu da oraingoa. *Como como coco me descoco poco* antzerkia eskainiko du gaur iluntzean Quemadura Teatro antzerki taldeak eta *Katillukadak* txotxongilo emanaldia egongo da domekan, Kontakatillu Txotxongilo taldearen eskutik. Biak ere Kutzaren Gizarte Ekintzak babesten dituzenez, doan izango dira.

Emakumeek egindako antzerkia

Emakumeek sortutako, zuzendutako, antzeztutako eta argizatutako lana da gaur iluntzean Herriko Antzokian aurkeztuko dutena. Antzezlan dibertigarria ez ezik, hausnarketarako aukera ere eskaintzen du. Antzerki bizi eta azkar honekin egunerokotasuna dramatiko zein barregarria izan daitekeela erakutsiko dute antzezleek. 20:30ean hasiko da.

‘Katillukadak’ umeentzat

Katillu izeneko bertsolari ohi baten eta bere lagun txotxongiloen abenturak aurkeztuko ditu domekan Kontakatillu txotxongilo taldeak. Katilluk denetik egiten daki eta tartean ipui-



nak kontaktzen dizkie herri desberdinetako umei. Domekan, 16:30ean izango da emanaldia.

Andrea Arregi bigarren, Euskadiko Aurreku Soinu Zahar Txapelketako kanporaketan



Joan den zapatuan jokatu zen Euskadiko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan hartu zuten parte Elgoibarko sei dantzari gaztek. Horien artean, Andrea Arregi bigarren egin zuen nesketan eta Miren Astigarragak hirugarren. Gainerakoan, Alaitz Egañak bosgarren egin zuen eta Saioa Marcosek hamabosgarren. Mutiletan, berriz, seigarren postuan geratu zen Eneko Gonzalez, eta hamaikagarren Julen Guillo. Hurrengo kanporaketa martxoaren 24an izango dute, Oiartzunen.

UEUren ikastaro berriak

Eibarko udaberriko ikastaroak aurkeztu ditu UEUk, inoiz baino ikastaro gehiago gainera. Krisiaren ondorioz Jauriritzak ordura arte emandako diru-laguntza handiena kendu dio UEUri eta horrek tinka larrian laga du herritarrei uneoroko prestakuntza eskaintzen dien eragilea. Alabaina, inoiz baino ikastaro gehiago antolatu ditu krisiari aurre egiteko. Elgoibarko Udalak gogorarazi du UEUko ikastaroak egiteko diru-laguntzak ematen dizkiela herritarrei. Ikastaroen informazio osoa: www.ueu.org helbidean.

Lucianoren erakusketa

Datorren barixakuan, hilaren 16an, ‘Lucianoren margoak’ izeneko erakusketa zabalduko dute Kultur Etxean. Hilaren 16an hasi eta 31ra arte egongo da Lucianoren margoak ikusteko aukera, astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era.

LANA

ESKAERA

- Emakumea zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. Astean zehar eta asteburuetan, orduka edo interna. ☎ **698 632 922**
- Gizona zaintzan, garbiketan edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **632 798 768**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Zaintza, garbiketa... ☎ **659 813 248**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke gauetan. ☎ **680 303 052**
- Gizonezkoa lanerako prest. Baserri lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. ☎ **649 122 603**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan. ☎ **652 446 228**
- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **626 052 165**
- Emakumea orduka lan egiteko prest, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduz. ☎ **690 134 485**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Esperientzia ekoizpen textilean, eraikuntzako peoi lanetan, garbiketa lanetan, zerbitzari lanetan eta banaketa lanetan. ☎ **689 286 167**
- Emakumea umeak edo pertsona helduak zaintzeko prest. Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumea egunez lan egiteko prest, edozein mota-tako lanetan. ☎ **685 212 060**
- Gizonezkoa baserri lanetan, abereak zaintzen edo eraikuntza lanetan aritzeko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna edo orduka. ☎ **649 044 223 / 943 257 217**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka eta astebukaerak ere. ☎ **689 632 922**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Paperak ditut eta kotxeko baimena. ☎ **632 798 768**

- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxex etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Astean zehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingelesko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

ESKAINNTZA

- Umea zaintzeko emakume euskalduna behar da. Orduka lan egiteko. ☎ **627 774 543**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak bi edo hiru logelatako pisua alokatuko luke. ☎ **602 490 595**

SALGAI

- Etxebizitza salgai: 3 logela, komuna, egongela, sukaldaria, igogailua eta gasa ditu. Pedro Muguruza etorbidean. 150.000 euro. ☎ **648 191 076**

BESTELAKOAK

- Bigarren eskuko maxi-cosia erosiko genuke. ☎ **635 706 537**
- Zorro gorri batean zegoen mugikorra galdu nuen kar-nabal-zapatuan, San Bartolome kale inguruan. Eskertuko dut. ☎ **690 220 989**
- Garaje itxia alokagai Jausoro plazan, plazatik gertu. ☎ **943 740 146 / 669 022 573**
- Ballo sentimental handiko erlojua galdu da, Omega Constellation markakoa. Identifikatzeko: erlojuaren itxidura korrearen gainontzeko ataletatik desberdintzen da. Ordain saria izango du. ☎ **669 960 785**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrokoak eta butanozko edo kerozenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko! ☎ **677 898 633**

KINTOAK

- 1977an jaiotako Kintoen bazkaria martxoaren 24an. 12:30ean elkartuko gara Madalan. Martxoaren 9a baino lehen 50 euro sartu behar dira Kutzako kontuan: 2101 0036 62 0012982112

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

Jarri ezazu zure publizitatea
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B
BARREN
astekarian
943 744 112





• Zorionak, **Nora!** Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetzean. Etxekoen, eta bereziki, Malenen eta Leireren partez.



• Zein handi eta zein guapo, **Oinatz!** Asteazkenean urtetxo bat! Txokolatezko patxo bat, Jare eta Lukenen partez.




• Zorionak, **Maité,** atzo zure lehenengo urtea bete zenuelako. Muxu handi bat! Beñat, Ane, Eneko, Maialen eta ebekoen partez.



• Zorionak, **Axier!** Domezkan urtetxo bat! Jarraitu horren alai! Muxu potolo bat aitatxo, amatxo eta etxekoen partez.




• Zorionak, **Nahia,** eta muxu handi bat etxekoen partez, martxoaren 12an 2 urte egingo dituzulako.




• Zorionak, amama **Celi,** bihar zure urtebetetzea delako. Muxu potolo bat etxekoen, eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak, **Oinatz,** zure lehen urtebetetzean! Tirakada bat belarritik, eta muxu bat zuretza-ko, artista!



• Gure etxeko sorgintxoari zorionak, asteazkenean 2 urtetxo egingo dituelako. Aitxita, amama, anaia Paul eta tia Nastiaeren partez.



• Zorionak, **Xubani!** Azkenean 9 urte! Oso ondo pasa! Familiakoena eta bereziki, Aimarren partez.



• Zorionak, **Unai,** asteartean 5 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat, bereziki, Elsaren partez. Pa!



• Zorionak, **Irati,** asteazkenean 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Urkoren partez.




• Zorionak, **Iuren,** zure bigarren urtebetetzean. Muxu potolo pila bat etxekoen eta familiako guztien partez.



• **Ane** maitea, zorionak martxoaren 12an 16 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat familiakoena partez.



• Zorionak, **Adei,** gaur 8 urte egin dituzulako. Familiakoena partez.



• Zorionak, **Mikel,** atzo zure lehenengo urtea bete zenuelako. Patxo potolo bat gure *potxotxo!* Etxekoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Ilargitxo,** bitxo! Asteartean 2 urte! Etxekoen eta bereziki, Juneren partez.



• Zorionak, **Lorelei eta Ruben,** bihar zuen lehen urtebetetzea delako. Muxu asko gurasoen, aitona-amonen eta osaba-izeben partez.



• Zorionak gure hiru piratei, 3, 4 eta 6 urte betetzen dituztelako. Txokolatezko muxu bana, denon partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU
Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

9 barixakua

Kultura

20:30 Antzerkia

Quemadura Teatroak *Como como coco, me descoco poco* antzezlan taularatuko du, Herriko Antzokian.

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Belceblues taldearen kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

10 zapatua

Kizolak

10:30 Pilota Eguna

6 eta 14 urte bitarteko umeek hartuko dute parte, Ikastolak antolatutako pilota jaialdian. Plaza Handian (Euria egiten badu, Ikastolako frontoian).

Ate irekiak

11:00 Ingeniaritza eskolako ate irekiak

Txandakako Ingeniaritza Eskolako ate irekien jardunaldia, IMHn.

Solasaldia

11:30 Kafe tertulia

Zer egiten du nire seme-alabak zapatu arratsaldean? Gaztelekuan.

11 domeka

Kultura

16:30 Antzerkia

Kontakaitillu antzerki taldeak *Katillukadak* antzezlan aurkeztuko du Herriko Antzokian.

15 eguena

Aurkezpena

20:00 Brigadak

Askapenaren brigaden aurkezpena. Gaztetxean.

16 barixakua

Kultura

18:30 Erakusketa

Luzianoren margoak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.



Apirilaren 3an, **Igeldora eta Aquariumera egun osoko irteera!**

Bazkideak, 8€ eta bazkide ez direnak, 12€.

Informazio gehiago Ludotekan.



Gaur ostirala, 20.30ean

Herriko Antzokira joango gara

Como como coco me descoco poco

izeneko antzezlan ikustera.

OKINDEGIA

11 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

9	Fernandez	Etxeberria
10	Yudego	Yudego
11	Yudego	Yudego
12	Zabaleta	Yudego
13	Barrenetxea	Barrenetxea
14	Ibañez	Etxeberria
15	Garitaonandia	Garitaonandia

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«La dama de hierro»

10, zapatua: 19:00/22:15

11, domeka: 19:00

12, astelehena: 21:30



«Chico & Rita» (Ongarri zinekluba)

15, eguena: 21:30

«La dama de hierro» Zuz.: Phyllida

Lloyd. Erresuma Batua, 2011. 105 min. Drama. Meryl Streep, Jim Broadbent, Richard E. Grant Margaret Thatcher Britania Handiko lehen ministro ohiari buruzko pelikula da. 80 urte ditu, eta bi urte lehenago hil zen senarraren jantziak erretiratzeko unea dela erabaki du. Horrek guztiak oroitzen asko ekarriko dizki.

«Chico & Rita» Zuz.: Fernando

Trueba, Javier Mariscal eta Tono Errando. Espainia eta Erresuma Batua, 2010. 94 minutu. Marrazki bizidunak. 40ko hamarkada amaierako Kuban, Chico eta Ritak pasioz beteriko maitasun harreman bati ekingo diote. Jazz musika maite duen pianojolea da Chico, eta Ritak, dantzari handi bat izatearekin egiten du amets. Habanako klub batean topo egiten duten unetik, bizitzak elkartu eta banatu egingo ditu, etengabe.

**IZUGARRIZKO
ESKAINTZAK**



Zanussi
INDUKZIOZKO PLAKA

ZIT 649 BV

369€



Dekorazio kanpai
HERDOILEZINA

TEKA-CMB 160

109€



LG-32LV3400
TELEBISTA

Full-HD-LED-100HZ - USB

399€

2012/03/23ra arte bako du, akzio tipografikoaren epean ezan edo produktuen amaiera arte

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milars.es

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

Arrasate MARTXOAK 15 osteguna, 17:30

Ordizia MARTXOAK 24 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati MARTXOAK 24 larunbata, 11:00

Irun MARTXOAK 31 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia MARTXOAK 17 larunbata, 10:30



LANBROA
KAFETEGIA



Gosariak PINEXOAK
Raziok OgitarTEKOAK
HANBURGESAK SANDWICHAK
PLATER KONBINATUAK
EgUNEROKO MENUA
OILASKO ERREAK
ERAMATEKO PREST

**ASTEAN ZEHAR 6:00ETAN ZABALTZEN
DUGU, ASTEBURUETAN 7:00ETAN**

Sukaldea egun guztian zehar zabalik

Orain errekaren norantza jarraituz 20 metro beherago gaude zure zain!



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

KEMEN BELARDENDA. NATUROPATA, IRIDILOGOA ETA HOMEOPATA.

Belardietetika eta fitoterapia, janari biologiakoa, "Esencias Trinidad", BACH loreak... Kontsultak:

- Programazio neurolinguistikoa (P.N.L.)
- "DIETA FACIL", pisu kontrola
- Makrobiotika eta elikadura energetikoa
- Famili Konstelazioa (banakako eta taldeko saioak)
- Bioenergia
- Reflexo-energia (haurdunaldietan ere)
- Aurpegiko lifting japoniarra

Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 29 - Elgoibar
Tel: 943 744 031
Aurretiko zita

SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA

Anginei aurre egiteko masajea.

Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaron astelehen eta
asteazkenetan: 15:00-16:30

Urasandi, 9 - Elgoibar
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131

ORTOPEDIAK

ITZIAR SARASKETA

Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

San Frantzisko, 12 - Elgoibar
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Bartolome, 10 - Elgoibar
Tel: 943 743 734

UZURI

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

VICTORIA IRAEGI

(Esku-terapiak: kiropraxia, dratnazaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

PODOLOGOAK

OINBERRI

Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25- Elgoibar
Tel: 943 741 795

IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645

FISIOTERAPIA

AINHOA FISIOTERAPIA

Fisioterapia eta osteopatia.

Jausoro, 6 behea.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. ERREABILITAZIO ZENTROA

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

San Inazio, 2 - Elgoibar
Tel.: 943 743 374

fisio&más

Fisioterapia Aurreratua eta Kirol Berregokitzea

- Esku-terapia
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- Esku Drainatze linfatikoa
- Mesoterapia

- KIROL BERREGOKITZEA
- OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA

Aupa Zen Medikuntza
Estetika Zentroa
Jausoro Plaza, 1 - Elgoibar
(Sta. Klaran,
Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 943 743 740

TX4 Fitness Gimnasioa
Ifor Kale, 3 - Eibar
Tel.: 667 953 628

HORTZ KLINIKAK

IRALE

Errosario Kalea, 7 behea
Elgoibar
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

BEITIA ARRIOLA

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Elgoibar
Tel: 943 531 869

